

# EU GASTEIZ


Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



oraingoan  
**BAI!**





  
**kide**

**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27  
Tfnoa: 14 41 95  
GASTEIZ

# ZURE HARATEGIAK

Z  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13  
☎ 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**

HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17  
☎ 270790  
GASTEIZ

**XABIER  
AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48  
2 eta 3  
Abastos Azoka ☎ 26 78 97  
2 eta 3  
GASTEIZ



**JOSEBA**

HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA  
10 ZENBAKIA  
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89  
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena  
kalitaterik onena*



# geu gasteiz uztaila

## Barnetegiak: euskararen udako trenak

14. orrialdea



## Juanito Oiartzabal Makaluren tontorrean

24. orrialdea



inkestak, kultura, gizartea,  
haurrekin solasean,  
denborapasak,  
...eta askoz gauza  
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Satorrak



tzako biltokia izan beharko lukeen zulo handia egiteko modurik; kontuan izan, gainera, zulo handiek baino ez diotela koskarik egiten erdarazko lur mugagabe horri. Tranpa batean erortzen garenean kexuz hasiko gara berriro, oso trebeak baikara kexatzen: batez ere, nekazariak nahi dugun zulo handia egiteko laguntzen ez digulako kexatzen gara, eta ez gara konturatzen nekazari horrentzat ez garea ezer, bakoitza bere tuneltxoan egiten bizi garen bitartean. A, baina denok bildu eta nekazariaren baratzean leizea egingo bagenu!

**ASPALDITIK NAGO** Gasteizko euskaltzaleok nor bere zulotxoan sartuta bizi garea, sator jator langile batzuen antzo, inguratzen gaituen erdarazko lur gogorrean zeinek bere bidea egiten, baina elkarrekin topatu ezinik; duela gutxi, baina, aldaba jo zigun norbaitek, euskararen inguruan sortutako auziarekin, eta top, top, top, lur tonttor bakanen bat azalean eginda azaldu dute muxajea satorretako batzuek, egon badaudela esateko, batzuk protestaka, batzuk larrugorritan, batzuk manifestuka. Baina urak bere bidera itzuli dira, itxuraz behintzat, txinpartak ez dira su bilakatu, eta nor bere luzuloa eraikitsera itzuli gara.

Gasteizko sator euskaltzaleok lurpeko gizarte bat osatzen dugu, ezkutukoa, eta horregatik ez gaituzte ikusten eta horregatik ez gaituzte oso kontuan hartzen, hain gutxi ez izan arren. Gainera, lurpean argirik ez dagoenez gero, begi itsuak dauzkagu, eta ez dugu topatzen denon-

Ez dakit, ordea, sator jendeak horretarako gogorik ere ba ote duen, azken aldabajotzearen bidez hamar bat ale biltzea zenbat kostatu zitzaigun ikusi eta gero. Hori bai, pozik gaude, harro eta guzti, protestatzeko daukagun hortz handia erakutsi eta nekazaria izutu dugula sinisturik.

Beharbada, satorrek kongresu bat égin beharko lukete, egundaino ez baita mundua mirestuko lukeen horrelako ikuskizunik gertatu; sator-batzar horretan egiatan non zulatu behar dugun erabaki behar genuke, lanari ekin eta lur azalera irten, nekazariak gure protestekin nazka-nazka eginda aitzurra hartuta noiz lagunduko digun zain egon gabe. Ausartuko ote zaizkigu aldizkari hau sustatzen dutenak sator jatorrak biltzen?

## Koldo Biguri

*Itzultzailea eta "Tolerantziaren izenean, Araba elebitasunaren alde" manifestuaren bultzatzaileetarikoa*

Zuzendaria: Iosu Kintas

Erredakzioburua: Iñaxio Lopez de Arana Erredakziobatordea: Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo . Xabier Zabaleta

Hizkuntz arduraduna: Inaxio Lopez de Arana Komikia: Iñigo Sarasola Marrazkiak: Aitziber Iriondo Maketazioa: Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo Publizitatea: Karlos Fdez. de Betoño Argazkilariak: Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi Kolaboratzaileak: Txipi Ormaetxea, David Alvez, Xabier Etxaniz, JuanJose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati) GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzukizunik

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon  
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a  
Tfno. eta faxa 22 21 53

GEU

elkartearen babesarekin  
6.000 Aleko Tirada  
Lege-Gordailua VI-582/92  
ISSN: 1133-0988



IZENA: \_\_\_\_\_ PISUA: \_\_\_\_\_  
 ABIZENAK: \_\_\_\_\_ ZKIA: \_\_\_\_\_  
 KALEA: \_\_\_\_\_ Kode Postala: \_\_\_\_\_  
 HERRIA: \_\_\_\_\_

**BEROAREKIN BATERA** gainera etortzen zaizkigu udako oporrak. Urtero bezala aukeratu behar da zer egin eta nora joan: hondartza ala mendia? Batzuen oporraldiak, ordea, azkoz bitxiagoak izaten dira: elkartasun proiektuak, urrutiko kulturak eta paisaiak ezagutu eta ikertu... Bestalde, bidai-agentziek denetarikoko oporraldiak eskaintzen dituzte. Denbora, gogoia eta dirua duenak badu non aukeratu.

# Kalea mintzo oporraldiaz



1. Aurten joango al zara oporretara? Zer nahiago duzu mendia ala hondartza?
2. Zeintzuk dituzu gustokoago, agentzia batek antolatutako bidaiak ala zure kabuz egindakoak?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu




J. A. ARANA ORTIZ  
komertziala

1. Aurten ez naiz oporretara joango galtzak bete lan nagoelako. Ahal izanez gero, hondartzara joango nintzateke.
2. Nire kabuz egindakoak, jakina. Nik plan txiki bat egiten dut inora joan aurretik.

## BI ESKAKIZUN UDAL BERRIARI

**BERTSOLARIA:**  
Xabier Rico

Hauteskundeak pasa ondoren, udal berria etorri zaigu. Hona hemen bertso-txoko honetatik egiten zaizkion eskakizun bi.



Lehen aldizkaria hilero iristen bazen zure etxera baina azken bolada honetan jasotzen ez baduzu, deitu 222153 telefonora, kontu hori lehen bait lehen konpontzeko



Soka bereko udala berriz gure hirian dadin lora Gasteiztar askok botoa eman du nahiz ta sarritan aztora hamasei urtez pisuek egin dute aparrak lez gora Nik udalari eskatzen diot hortan jartzeko ganora. Bestela hianbat joango zaizkigu nik ondo badakit nora Aita ta Amaren kobazulotik El Salvador-ko nitxora

Udaletxeko ekintza askotan euskara da marjinala, bertara joan, "niri erdaraz" da askoren hitz petrara. Baina Gasteizen euskara mailan ez gaude aspaldi bezala, hamabost mila euskaldun gara hau ez da marka makala. Udal berriak zabaldu behar du gaur arteko bide apala, euskal hiztunok, behar den legez, aintzakotzat har gaitzala!

**azkarprint**  
Cercas Bajas, 4  
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiatu ere egiten ditugu

**GASTEIZ**

**INPRIMATEGIA**

BITORIANO ZUIA • ARABA  
TEL. 43 06 73

IZARRA TABERNA - JATETXEA





BEATRIZ VELEZ DE MENDIZABAL ikaslea

1. Mendia nahiago dut, batetik natura ezagutzeko aukera ematen duelako eta bestetik, ezin ditudalako hondartzak ikusi ere egin.

2. Argi eta garbi dago nik nahiago izaten dudala neronek aukeratzea nora joan.



J. M. GREGORIO FERNANDEZ Kirol aholkularia

1. Printzipioz, mendira joango nintzateke hor pake handia dagoelako. Hori asko gustatzen zait.

2. Oporretara joanez gero, nik neuk aukeratzen dut zer nahi dudana.



ARANTZA LORENZO ikaslea

1. Bai noski. Aurten ere hondartzara joango naiz hondartzazale amorratua naizelako.

2. Normalean agentzia baten bidez, horrela erosoagoa iruditzen zait eta gainera, aitak antolatzen ditu bidaiak



ANGEL GARCIA FERNANDEZ funtzionaria

1. Baietz espero dut. Iaz Pirineoetara joan ginenez, aurten hondartzara tokatzen zaigu, Mediterraneora.

2. Beti gure kabuz egiten dugu bidaia. Dena den, lagun asko daukat eta berei esker leku zoragarriak aurkitzea erraza egiten zait.



TERESA DELGADO estetizista

1. Oraindik ez dakit. Datorren astean jakingo dut. Nahiz eta Donostiakoa izan, gutxitan joaten naiz hondartzara.

2. Senarra eta biok aukeratzen dugu, hori egiteko gogoia besterik ez da behar.



# ARABA GURE LURRA

Ba al zenekiten Arabako lehenengo gizakia Erdi Paleolitikoan agertu zela? Ba al zenekiten lehen giza aztarnak (Neanderthal gizonarenak) Murban (Trebiño) aurkitu zirela? Ba al zenekiten Brontze Aroan ere euskaraz egiten zela Araban? Erantzunen zain egon beharrik ez dago ohartzeko arabarroi oraindik dexente ezezaguguna zaigula gure lurraldea. Eskasia horretaz oharturik, galdera orokor batzuk prestatu dizkizuegu Araba zenbateraino ezagutzen duzuen ikus dezazuen. Erantzunak hurrengo alean.

1. MUSIKAGILE BAT ERRIOXA KALEAN JAIO ZEN 1894AN. NOLA ZUEN IZENA?

2. ARABAKO ZEIN TALDEK DITU BERE ARMARRIAN BI BASURDE ETA SEI GAZTELU?

3. ZEIN IBAI IGAROTZEN DA LUKIANOTIK?

4. PEDRO DE ASUAK BI LANBIDE IZAN ZITUEN: APAIZA ETA...

5. ZENBAT ALDIZ IZAN ZEN ZELEDON JUAN LUIS DE ISASI?

6. FONTETXAN JAIO ZEN ETA BERE GARAIKO ABESLARIRIK HANDIENETAKO BAT IZAN ZEN. NOR DA?

7. ZEIN UDALERRITAN DAGO AZEBEDO HERRIA?

8. ZEIN URTETAN TOREATU ZUEN LEHEN ALDIZ MANOLETE-K GASTEIZKO JAIETAN?

9. ZEIN DA ARABAKO KOBAZULORIK HANDIENA?

10. ZEIN UDALERRITAN DAGO GEBARA HERRIA?





# VITAL ABENTURA kirola

## Vital Kutxa udalagun

Aurtengo udan zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, norretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, bi motatako ekitaldiak eskaintzen dizkizugu: abentura kutsukoak eta ekintza nautikoak, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, segidako datuei eta etorri lehen bait lehen Vital Kutxara izena ematera ekintza edota ikastaro mordo batean.

Bai ekintza nautikoetarako bai kirol-abenturetarako, Caja Vital Kutxaren Telecaja Joven txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroei buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.

## KIROL-ABENTURA (\*)

Espeleologia	uztailaren 1ean eta 16an	3.500 pta
Hipika	uztailaren 8an eta abuztuaren 20an	5.000 pta
Rafting-a	uztailaren 8tik 9ra (asteburua)	9.000 pta
Haitzarten jaitsiera	uztailaren 9an (egun bakarra) eta uztailaren 22tik 23ra (asteburua)	3.500 pta (egun bakarra) eta 9.000 (asteburua)
Hidrospeed-a	uztailaren 30ean (egun bakarra) eta uztailaren 1etik 2ra (asteburua)	3.500 pta (egun bakarra) eta 9.000 (asteburua)
Trekking-a	uztailaren 29tik 30ra (asteburua)	5.500 pta
Hidrospeed-a eta Rafting-a	abuztuaren 26tik 27ra	9.000 pta

(\*)

**PARTE HARTZAILEAK:** 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

**IZENA EMAN:** ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

## EKINTZA NAUTIKOAK (1)

IKASTAROA	LEKUA	ORDUAK	ADINA
Piraguismoa	C.N.V.	16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra	11 urtetik gorakoak
Piraguismoa (2)	Legutiano	16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra	15 urtetik gorakoak
Bela-kirolaren hastapenak	C.N.V.	16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra	15 urtetik gorakoak
Bela-kirolaren hastapenak	C.N.A.	16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra	15 urtetik gorakoak
T.D.V.	C.N.V.	15:30tik 17:00ra edo 17:00tik 18:30ra edo 18:00tik 20:00ra	11 urtetik gorakoak
T.D.V.	C.N.A.	15:30tik 17:00ra edo 17:00tik 18:30ra edo 18:00tik 20:00ra	15 urtetik gorakoak
Optimist-a	C.N.V.	16:00tik 19:00ra	7 urtetik 14ra
Optimist-a	C.N.A.	16:00tik 19:00ra	7 urtetik 14ra
Ur-skia	C.N.V.	16:00tik 18:30ra	10 urtetik gorakoak
Ur-skia	C.N.A.	16:00tik 18:30ra	10 urtetik gorakoak


(1) Ikastarook egun hauetan egongo dira  
uztailaren: 3tik 7ra / 10tik 14ra / 24tik 28ra  
abuztuaren: uztailaren 31tik 4ra / 14tik 18ra / 21tik 25ra

(2) uztailaren 28tik abuztuaren 21ra ez da ikastaro hau egongo



**NOLAKO IDAZKERA  
HALAKO IZAERA**

# Patxi Goenaga



*Bizi eta bizitzaren utzi. Pausa  
simplea baina zaila ere bai, antza.  
Baina esatera hori epia biktuzien  
ez badugu gariki ibiliko gara.*

*Patxi Goenaga*

**HILE HONETAN** aukeratu dugun pertsonaia, gasteiztarra ez bada ere, oso lotuta dago gure hiriarekin eta gure unibertsitatearekin. Izan ere, kultura arloan Patxi Goenaga nor den ez dakienik gutxi daude. Bere idazkerak adierazten duenez, dinamismoa berezko ezaugarritzat du eta, batzuetan atsedena hartzen duen arren, esan genezake gustokoa duela lan egitea. Horiek horrela, berak garatutako filosofian lanaren esparruak berebiziko garrantzia har dezake eta, horren ondorioz, zaila dauka askotan zer den bizitzea eta zer lan egitea bereiztea, biak batera baitoaz. Zeresanik ez, hori dela eta, errudun senti dezake bere burua lanean ez diharduenean. Egia esan, geure gizartean lan, ihardun eta eginkortasunaren arabera neurtzen da arrakasta, baina egindako lanaz gozaten ere jakin beharra dago. Garrantzitsua da, beraz, lanak atsedena behar duela ulertzea, bai eta erein egin behar dela uzta jaso nahi bada.

Patxi Goenaga gizon gogatsua, bizkorra eta saiaturia da. Gaitasun handia dauka altxatu eta lanean hasteko. Eraitza onen bila ahalegintzen da eta oso emankorra izan daiteke bere ihardunean. Ez da besterik gabe dagoen lekura heldu, asko ikasi behar izan du aurretik.

Bere barruko mundua adieraztea ez dauka batere erraza. Emozioek ez daukate adierazpide haundirik eta horrek arazo batzuk sortzen ditu. Nolanahi ere, batez ere, bere ibilbide soziala azpi-marratuko nuke, eredugarria baita goitik behera. Arlo horretan dituen doaiak ukaezinak dira. Hizkuntzalaria baino berebiziko filosofoa daukagu Patxi, gizatasun haundikoa, unibertsalista, neurritz jokatzeko ondo dakiena, metafi-sikaren eta Santo Tomas Akinokoaren defenda-

tzailea. Euskararen munduan murgilduta ibili arren, ez da sekulan erori txokokerietan. Munduari begira dagoen euskalduna da. Euskal Herri eta euskerari buruz daukan ikuspegia orokorra da, sentimentalismorik gabekoa, pragmatikoa, erreala. Eta horrek ez du esan nahi gure herria eta gure hizkuntza gutxiago maite dituenik. Batzuentzako hotzegia izan daiteke, baina gaur egun geure gizartean oso baliozkoak dira arazoak objetiboki aztertzeko gai diren gizon-emakumeak. Bere oraingo karguan zenbat iraungo duen ez dakit, baina penagarria litzateke bere *à savoir faire* ez ulertzea. Patxi, ez gutxitan, bere gustokoak ez ziren lekuetan egon da laguntza emanik gizartearen onerako. Eta hori, dudarik ez, eskertzekoa da.

*Iñaki Gauna*



izozkiak

**TXAPELARRI**  
TABERNA

kutxilleria jo ta ke  
83 ★

**axular**

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ





# Araba Euskaraz 95 demasakoa !



**e**kainak 18, igandea. Euskaltzaleok bagenuen nora joanik egun horretan. Armentia gure zain zegoen, hor ospatu baita aurtengo Araba Euskaraz. Hara hurbildu ahala, gero eta jende gehiago ikusten zen bazterretan, euskararen aldeko egun hark denok behar gintuela oharturik nonbait. Eguzkiak ez du inor apaldu etxezuloan, hara bildu zen jendetza kontuan izanda. Geroztik egun batzuk igaro dira eta balantzea egiteko ordua iritsi da. Horretarako, aurtengo Araba Euskaraz-eko antolatzaileengana jo dugu haien iritzia zuei jakinarazteko.

**POZIK DAUDE** Araba Euskaraz-eko antolatzaileak, horretarako arrazoirik ez zaie falta, jendetza izugarria hurbildu zelako egun hartan Armentia. "Antolaketan ihardun zuen jende guztiak itzelezko lana egin zuen, baina Araba Euskaraz-era ikaragarritzko jendetza etorri zenez, pozez esan behar dugu gure lanak fruituak eman zituela". Apustu-kutsua zuen aurtengo leloak: "Baietz atera". Antolatzaileen arabera, leloak zioena erabat bete da "atera egin delako, oso ondo atera ere". Antolatzaileek aurtengo edizioaren arrakastari laguntzaile izan dutenei ere egotzi diote eta horregatik, "eskerrak eman nahi dizkiegu modu batean edo bestean

Araba Euskaraz-en lagundu diguten guztioi".

Zenbakiei dagokienez, gutxi gora-behera, 70.000 lagun hurbildu ziren Armentia eta 35 milioi pezeta inguru jaso zituen Armentia ikastolak. Diru kopuru horri, noski, aurretik izandako diru-sarrerak kendu behar zaizkio. Hori dela eta, "iaz Labarkan egindako Araba Euskaraz-ekin pareka daiteke". Aurtengo edizioak, ordea, berezitasun bat izan du, antolatzaileen arabera: "Armentia ikastola txikia izanda ere, hemengo jendeak egin duen lana aurreko edizioetan baino handiagoa izan da. Aurten salto kualitatibo bat egin da jendearen konpromisoaren aldetik". Beren hitzetan, "irakasleek, guraso batzuek, ikasle batzuek eta beste ikastola batzuetako laguntzaileek egindako lana benetan txalogarria izan da". Haiek adierazi digutenez, jarrera hori izan da gehien poztu dituen, diru edo jende kopuruari hainbeste begiratu ez baitiote. Horrek agerian uzten du "ikastola honek aurrera egingo dutela etorkizunik baduelako, hemen dugun jendearekin ezin baita atzera egin".

## GEU Gasteiz aldizkaria hizpide

Aurtengo edizioaren ondoren, poza eta alaitasuna nagusi izan arren, Armentia ikastolakoak kexu azaldu dira GEU Gasteiz aldizkaria dela eta. "Guk badakigu GEU Gasteiz aldizkaria plurala dela eta era guztietako iritziek lekuri dutela bertan. Guk ez dugu inola ere esaten zer argitaratu behar den eta zer ez. Halere, antolatzaileoi

**IRUSTA TABERNA**

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 23 19 33

GASTEIZ





BAIETZ ATERA!



izugarritzko mina egin zigun aurtengo Araba Euskaraz-i urteroko tratamendua ez emateak, aurretik hala esana baziguten ere. Izan ere, ekaineko alean Araba Euskaraz-i buruz argitaratu zen artikuluak lau orrialde zituen eta horietatik orrialde bat baino gehiago Araba Euskaraz-en kontrako gutun batek betetzen zuen. Gainera, jendeak ez zuen ezer ulertuko, artikulu hura berez ilojikoa zelako". Bukatzeko, hau azpimarratu nahi izan dute: "Guk uste dugu Araba Euskaraz-ek baduela nahikoa entitate behar bezalako tratamendua emateko".

*Iñaxio Lopez de Arana*

### ERREDAKZIO BATZORDEAREN OHARRA:

Azken aleko (ekainekoa), 18. eta 19. orrialdean huts bat egin zuen GEU Gasteiz aldizkariak: "Denbora gehiegi galdurik: konponbide bat nahi dugu" izenburuko gutunari ez genion tratamendu egokirik eman. Izan ere, gutuna izanda ere, Araba Euskaraz-i buruzko artikuluaren barruan sartu genuen eta ez "Postariak ekarria" sailean, dagokion lekuan, hain zuzen. Azkenik, artikuluaren antolaketa ere nahasia zen, Araba Euskaraz-i buruzko kontuak eta gutuna bera gaizki banatuta zeudelako elkarren artean. Beraz, norbait minduta sentitu bada edota inolako kalterik jaso badu gure errakuntza haren ondorioz, bihoakio hemendik gure barkamen eskaera.



# Araba Euskaraz

**ETA IRITSI** zen eguna. Iritsi zen Ekainaren 18a. Urtebeteko lana, neke eta izerdien ordaina jasotzeko eguna. izan ere, **ARABA EUSKARAZ** bezalako jaialdia antolatzea zer den antolatzaileek soilik jakin dezakete. Buruhausteak, ordu estrak, zuzenketak, eskakizunak, eta -nola ez- poltsikoak arintzea... Azkenean, ongi ateratzen bada, denak pozik -nekatuta baina pozik-. Eta ondo atera da.

Goizeko 9etan aparkatu nuen autoa. Mendizorrotza futbol zelaiaren aurrez-aurre. Ez zen bezperako oihurik ez txalorik entzuten. Zelaiak lotan zirudien. Isilik. Inguruan jaialdi handia hastear zegoen. Horrek errespetua merezi zuen. Gorunz abiatu nintzen, pasealeku zoragarri hura dastatuz. Ez zen -ez-aspertzeko arriskurik. Hemen gozokiak! Hor bitxikeriak! Han liburuak!... Denak korrika eta presaka bere mahaiatxoak prestatzen. Eta holaxe -bata ikusi, bestea agurtu- Santutegi ingurura iritsi nintzen. Bazen, bai, ordurako jenderik. Gehienak antolatzaileak, azken ikutueta buru belarri. Eguzkiak oztoporik gabe erakusten zuen bere amorru beroa. Zirkutuari bueltatxo bat eman eta dena primeran prestatuta zegoela aitortu behar. Jendea -gazteak, batipat- galdezka: Zein area da hau? Zein da 1. txosna?. Lanera zertorren jende fina. Zerbitzariak blai, etengabeko zerbitzuan. *Hau duk hau paradisoa hi...!* -esan zidan Gipuzkoako lagun zaharrak- *Nolako antolaketa! Portatu zarete Arabarrok.*



Herriak euskararekiko duen lotura nabarmen dastatu zitekeen zelai zoragarri haietan. Lagunak, ezagunak... Nonnahi eta denak pozik.

*Ardu hau epel xamar zegok -esan zion zerbitzari lagun bati- eta zer nahi duzue bada, ez diozue freskatzeko betarik ematen eta...? Edan ere edaten duzue gero...!*

Eta halaxe, bat agurtu eta bestearekin hitzeginez, arratsaldeko zazpiak. Baina ez jan eta edan gabe, denetarik baitzegoen, denetarik eta ondo *kariñoz* prestatuak, Euskaraz prestatuak.

Zorionak antolatzaile eta lagun-tzaile guztioi. Esker mila hurbildu zineten milaka eta milaka euskaltzaleoi eta agur **ARABA EUSKARAZ 95**. Betor **ARABA EUSKARAZ 96**. Nahiz eta diru faltarik izan ez, nahiz eta laguntza guztiak eskuratu eta Euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusi bihurtu, euskarak berak eta nola ez euskaldunok merezi dugu urtean behin honelako jai eder eta alaia.

**Abel Enbeita**

**Ederki**

argazki estudioa  
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN  
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak  
Estudioko argazkiak  
Bideo industrialak  
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

EDAN • JANTEGIA

**Oleaga**

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin  
Eguneroko Menua: 1000 pzt  
Betiko kazuelatxoak*



# Euskaldun baten bizipenak Guatemalan



**M**ikel Resak Guatemalan igaro zuen 1992. urtea errefuxiatu guatemaldarrei laguntzen. Ondorengo lerroen bidez jakinaraziko dizkizuegu Mikelek hango jendearekin izandako harremanak, ohianeko arriskuak... Guatemalan urtebetez brigadista ibili zen euskaldun baten esperientzia, alegia

**HANGO JENDEA** Mikelek gogoratzen du iragan-minik handienaz. Mikel Resa urtebetez izan zen Guatemalan, Hondurasen, Nikaraguan, El Salvadorren eta Mexikon. Guatemalan, ordea, igaro zuen denborarik gehiena. Erresistentziako herri komunitateetan egin zuen lana.

Orain, berriz, Euskal Herrian betiko bizi nahi duela esan digu, brigadistak atzeritik etortzerakoan "hemen hartu behar

baitute konpromisoa". Herrialde urrun horien errealitatea ezagutzeko asmoz abiatu zen hara, baina hemen egonik, "lana Euskal Herritik egin behar dugu".


## Herriari lagunduz

Mikelek esan digunez, hango bizilagunek brigadisten laguntza behar zuten ejerzitoaz babesteko. "Ejerzitoa oihanean sartzen zen eta guatemaldarrak hiltzen zituen, bazter guztiak txikitu ondoren". Hangoek, ordea, ezin zuten ihes egin, egoera oso larria izan arren. Hori ikusita, brigadistek laguntzen zuten irakasle bezala lan eginez edota gazteen edo emakumeen mugimenduei lagunduz.

Hasierako urteetan oso brigadista gutxi ausartzen ziren tokitara joaten beren bitzta arriskuan jartzera besteei laguntzeagatik. Azken urteotan, ordea, leku guztietatik hasi dira hara joaten. Hala ere, Euskal Herriko jendea nagusi da. "Frantzia, Italia eta abarreko jendea atzerritartzat hartzen da, euskaldunak, berriz, hangoak izango bagina bezala bizi gara han".

“ **Hango jendearekiko harremanak poliki-poliki hobetuz eta sendotuz joaten dira** ”

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ



GORETTI  
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau  
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ



“**Denbora gutxi ematen duten brigadek kaltea erakar diezaiokete herrialdeari hasitako dinamika hutsegiten duelako**”

Hasieran, hango jendearekin izandako harremanak dexente hotzak zirela esan digu Mikelek, baina poliki-poliki brigadistekin konfidantza hartzen dute. Guatemalan “orejas” izengoitiko espia tankerako batzuk daude. Hortik dator hasierako mezfidantza. Horren ondorioz, jende berriarekin dituzten hastapeneko harremanak oso hotzak izan ohi dira. “Gero, beren ondoan jo eta ke lanean ikusten zaituztenean ohartzeko dira laguntzera joan zarela eta orduantxe hasten dira konfidantza hartzen”.

**Oihaneko arriskuak**

Oihanean arrisku bat baino gehiago dago eta bi baino gehiago ere bai. Baina, antza denez, arriskueta nagusia ejerzitoa bera zen. Gaur oihanean sartu eta erasotu egiten zuten. Hori ikusita, bertakoek gordelekuetara abiatu behar izaten zuten babes bila. Orain egoera apur bat aldatu bada ere, oihanaren arriskuak lehenean daude: sugeak, alakranak, intsektu piloak. “Normalean ez ziren oso arriskutsuak oihanean kokatu egiten zirela sugeak. Mingarriena hauxe da: mingaina loak hartzea”. Bestetik, bertakoek jateko ohituretara eta eguraldira egokitzeko zailtasun handiak izan zituen Mikelek. “Han ez da giro, izugarritzko beroa egiten du eta”. Sabeleko ajeak ere ez dira bakarra gertatzen, baina “pixkanaka-pixkanaka gorputza ohitu egiten da eta, nik dakidala, orain arte inor ez dela hil horrelako gaixotasun batek jota”.

Hara joateko asmotan dagoen bati aholku bat ematen ere ausartu da Mikel: “Lehenik, ondo ezagutu behar du

herrialde horretako historia eta bigarrenik, kontuan izan behar du herrialde batean denbora gutxi ematen duten brigadek lagundu beharrean kaltea erakar diezaioketela herrialdeari. “Hilabete batean bertan irakasle modura egonez gero, dinamika bat sortzen da eta gero handik alde egitean sortu duzun dinamika hori hausten da”.

Handik etorrita, brigadistek Euskal Herrian egiten duten lana azpimarratu nahi du Mikelek: “Kanpoan bizi izan dutena erakusten dute hitzaldien bidez, diapositiben bidez...” Izan ere, komunikabideek, Mikelen iritziz, ez dute errealitatea den bezala agertzen.

**Elkartasunik eza**

Mikelek uste du elkartasun-kontzientzia ez dagoela oso zabaldurik. Bere ustez, behar gorria duten herrialdeei ez diegu dena eginda eman behar, “horrela ez delako ezer lortzen”. Berek ikasi behar omen dute beren arazoak konpontzen eta beren janaria lortzen. Guk, berriz, eli-

kagaiak lortzeko bideak irakatsi behar dizkiegu, Mikelen irudiko.

Han egin zuen denboraldia samurra ez izan arren, oso oroitzapen ona du hango jendeaz. Han hizkuntza asko hitzegiten dira; horrek, dudarik gabe, arazoak dakartzio mundu hori erabat arrotza duen bati.

Ameriketan izandako esperientzia zoragarriaren ondorioz, Erta Amerikara itzultzea pentsatu du. Hala ere, aipatu digunez, nahiz eta hara askotan joan, “haiek bezala hitzegiten bukatuko dut, baina beti nire erara pentsatuko dut, hau da, euskaldun bezala, ni euskalduna naizelako”.

Bukatzeo, bitxikeria bat kontatu nahi die Mikelek oihanera joateko asmoa dutenei: “Ez pentsa eltxoez babesteko edozein gauza eraginkorra denik, han eltxoek Autana edaten baitute”.

**Susana Calleja**



**GARNICA** 

**Gorbea kalea 40  
Tfnoa: 24 18 73**

**FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK**



ZAILA DA, OSO ZAILA EUSKARAZ GASTEIZEN BIZITZEA

# Elena Gonzalez de Artaza



Elena Gonzalez de Artaza Ruiz de Larrinaga Perez de Mendiguren Uriarte... Ondokoak ere deitura bikoak ditu. Deiturek salatzen dute eta bistan da nongoa den. "Hemengoa naiz, gasteiztarra". 1.969ko urriaren 8an jaio zen eta, beraz, hogeitabost urte ditu. "Libra naiz, uste dut, ze, orain aldatu dute, ezta?". Irakurtzen du baina komeni zaiona besterik ez du sinesten.

Arana auzoan bizi izan da beti. "Oso gustora nago han". Hantxe bizi da orain ere. "Ezkonduta eta primeran".

Samaniego eskolan ikasi zuen. "Auzoan zegoelako". Euskara, berriz, Udaberri Euskaltegian. "Hasi nuen, utzi nuen, jarraitu nuen... Karrera egiten ari nintzela hasi nuen; utzi nuen urte bat, gero hartu nuen berriro eta horrela, saltoka".

Dantza irakasle da San Antonioko Musiketxean eta Adurtzan ere irakatsi ohi du. Bestelako ikasketak ditu, ordea. "Bukatu bezain pronto utzi nuen". Ikasten ari zela ekin zion dantzan irakasteari eta horretan ari da geroztik. "Biokimika estudiatu nuen, Leioan. Bukatzeagatik bukatu nuen".

## DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Arropa erostea. Denetarik: gonak, prakak... Oinetakoek ez dute garrantzirik. Aldatzen dut joera; garai batean alkandorak, alkandorak eta alkandorak. Hurrengoan, berriz, fularrak eta fularrak...

## ETA BERTUTEA?

Zeuk esan behar duzu.

## ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Pozik eta gustora bizitzea. Eta egiten dudan guztia gustora egitea eta jendeari horixe kutsatzea.

## ETA ESKAINI?

Dena. Egiten dudana dena, neuretzat eta besteentzat egiten dut. Uste dut.

## NOLA BEHAR DU: GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA ALA VITORIA-GASTEIZ?

Vitoria-Gasteiz ondo dago. Uste dut.

## JENIORIK BAI AL DUZU?

Bai, eta handia. Segun eta non eta norekin nagoen ateratzen dut. Egoeraren arabera. Etxean, errazago, konfidantzagatik edo. Kanpoan, berriz, oso apal egoten naiz.

## ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Batzuetan neure izaerak.

## ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Lana.

## EUSKARAZ BIZI LITEKE GASTEIZEN?

Zaila da, oso zaila.

## GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai, lan ona egiten dute.

## EGUNKARIEN BAT?

"Egunkaria".

## TELEBISTA PROGRAMARIK?

"Goenkale". Ez dakit zer egingo dudana "Goenkale" bukatzen denean. "Bi eta bat"

ere ikusten dut, oso ona da. "Euskadi Zuzenean"...

## OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Orain oporrak senarra eta biontzat dira eta, beraz, bion artean aukeratzen saiatu behar dugu. Oporrak eguzkitan egoteko dira niretzat, benetan. Lehen, orain dela sei urte edo, ikastaroak egiteko edo ziren, baina orain, hiru aste ezer egin gabe.

## ETXEKO LANAK NOREN KONTURA?

Teoriaz, bion artean, baina errealitatean...

# arcaya

Portal de Villarreal, 22-24  
Tfnoa: 26 06 58  
Portal del Rey, 21  
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK

UDABERRIA  
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33  
GASTEIZ



Ni lanpetuta nago baina nire senarra ni baino askoz gehiago. Ez dut etxeoandrerik jarri nahi eta beraz, niretzat dira etxeko lanak. Senarrak gauza txiki batzuk egingo ditu eta bestea nik.

**JAKI GOXOREN BAT.**

Asko. Jatun ona naiz. Ia-ia guztia gustatzen zait, babahaundia izan ezik.

**FILMEREN BAT?**

"Atrapado en el tiempo". Duela urte bat edo ikusi nuen. Beti egun berean esnatzen den gizon bati buruz.

**LIBURUREN BAT?**

"110. Street geltokian".

**IDAZLEREN BAT?**

Arturo Perez Reverte.

**ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA? ZER DUZU EGUNEROKO ERAGINGARRI?**

Jendea. Ikasleak, familia, lagunak. Guztiek dute bere zatitxoak.

**ZER IZANGO ZINATEKE IRAKASLE EZ BAZINA?**

Asko gustatzen zait protokoloak egitea. Edo udalaren etxebizitzetan lan egin, familian arazoak dituzten umeekin. Lan hori gustatzen zait. Beste egoera bat da, baina beharbada orain ez nuke berriro biologia ikasiko.

**GASTEIZEN BIZIKO EZ BAZINA, NON?**

European, seguru aski, Amerikan ez.

**ZER DA GASTEIZEK DUEN ONENA?**

Hiria bera. Kaleak politak dira, guztiok dugu etxea -polita, handia, txikia-, guztiok gaude teilatuta azpian. Gustora ibiltzen da kaletik. Oso harro nago hiriaz.

**NOLAKOA LITZATEKE MUNDUA AGINTARIAK EMAKUMEAK BALIRA?**

Berdina.

**ZEIN DA GOBERNUAREN LANA?**

Etxe handia [gizartea] ondo antolatzea.

**EMAKUMEAREN BERDINTASUNA SOLDADUTZATIK PASATZEN DA, ALA INTSUMISIOTIK?**

Jakina, emakumearen arabera. Batzuek bata aukeratuko dute eta besteek bestea.

**NOLAKOA BEHAR DU ZURE BIKOTE-LAGUNAK?**

Inteligentea -azkarra-, detailista, ona eta leiala.

**ZEIN DA EUSKAL HERRIKO ARAZOEN GILTZA?**

Inbidiarik ez izatea.

**ZORIONTSU IZATEKO SEKRETUA?**

Nork bere egoera onartzea; eta besterena ere bai.



**ZER**

**NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ ESATEA?**

Folklorearen alde saiatu naizela. Asko ala gutxi egin, ia nire bizitza osoa ari naiz ematen horretan.

Miel Anjel Elustondo

**Floridako altxorra!**

**35**


**adaka M madinabeitia**

**altzariak • apaindurak**  
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59  
GASTEIZ



# Barnetegiak

## euskararen udako trenak



**UDA HONETAN** ere euskaraz bizitzeko eta primeran pasatzeko aukera ezin hobea izango dugu IKA, AEK, Udaberria eta Hegoaldeko barnetegietan. Ikasturte osoa eman baduzu egunero zintzo-zintzo euskaltegira joaten eta udan astirik baduzu dakizun apur edo asko hori lantzeko eta sendotzeko, oraingoa da garairik egokiena beldur guztiak alde batera utzi eta euskararen udako trenera igotzeko, barnetegi batean izena emanez. Norbaitek udan egingo duena oraindik pittin bat lausoturik ikusten badu, irakur dezala segidan datorrena, horrek uxatuko baitizkio zalantza guztiak. Hona, bada, Gasteizko euskaltegiek barnetegiari buruz adierazi digutena. Dena dela, inork argibide gehiago nahi izanez gero, joan dadila euskaltegietara eta hor nahi adina informazio emango diote.



*ditare*

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

**zurbeltz**

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



## AEKko BARNETEGIAK 95

### NON:

Urepelen (Behe Nafarroa) eta Zuberoan lehenengo urratsetik gorako ikasleentzat.

Aizarnazabalen, Diman, Zestoan, Ondarrun eta Arantzan hirugarren urratsetik gorakoentzat.

### BARNETEGIAK:

Iparraldeko zein Hegoaldeko inguru miresgarriak ezagutu ahal izango ditugu eta denetarik euskalkiez gozatu, toki guztiak euskara hutsezko giroetan blai daudelako.

### NOIZ:

uztailean, abuztuan eta irailean. Bi, hiru edo lau aste txanda bakoitzean.

### IKASLEEN ADINA:

hamasei urte gutxienez.

### EGUNAREN BANAKETA:

Zazpi eskola-ordu egunean. Eskola-ordutegitik kanpo, ohizko txapelketak, mendi-irtenaldiak... antolatuko dira.

Asteburuak barnetegietan emango dituzte kultur, kirol eta denetarik ekintzak eginez.

### ERAMAN BEHARREKOAK:

lo zakua, maindireak; arropa eroso eta ikasteko materiala.

## IKAko BARNETEGIAK 95

### NON:

Doneztebe, Leitza, Lesaka, Etxalar eta Arbona.

### BARNETEGIA:

Nafarroako txoko izkutuak bezain txundigarriak hurbil-hurbiletik mirestekoa parada izango dugu hango euskalkiaren gozotasuna dastatzen dugun bitartean.

### NOIZ:

uztailean, abuztuan eta irailean. Bi,

hiru edo lau aste txanda bakoitzean.

### URRATSAK:

hirugarren urratsetik gora.

### IKASLEEN ADINA:

hamasei urte gutxienez.

### EGUNAREN ANTOLAKETA:

Egunean bost eskola-ordu ematen dituzte honela banaturik: Goizez: 9etatik eguerdiko ordu bata t'erdira.

Arratsaldez: 4etatik 6ak arte.

Horretaz aparte, astirik izango dute tailerrak, irteerak eta bestelako ekintzak ere burutzeko.

Asteburuak barnetegietan bertan emango dituzte denetarik ekintzak egiteko aukera izango dutelarik.

### ERAMAN BEHARREKOAK:

lo zakua, maindireak, arropa eroso eta ikasteko materiala.

## BAKAIKUKO BARNETEGIAK 95

Antolatzaileak:

Bilboko Gabriel Aresti euskaltegia.

Gasteizko Hegoalde euskaltegia.

Gasteizko Udaberria euskaltegia.

### INGURUA:

Sakana-Barranka bailaran, Aralar eta Urbasa artean, naturaz inguratutik eta eskualde euskaldun batean dago Bakaikuko. Bertan, norberak gustoko dituen kirol eta beste zenbait aktibitate daude aukeran: frontoia, zalditokia, ibilbideak, etab.

### BARNETEGIA:

Bakaikuko barnetegia bereziki ikastaldeak hartzeko prestatutik dagoen etxea da. Otorduak -gosariak, bazkariak eta afariak- bertako sukaldean prestatzen dira. Logelak lau/sei lagunentzako prestatutik daude; bakoitzak eraman behar ditu lo-zakuak eta izarak.

### NOIZ:

Uztailean: 3tik 15era eta 17tik 29ra. Abuztuan: uztailean 31tik abuztuaren

12ra eta a14tik 26ra.

Irailean: 4tik 23ra.

### EGUNAREN ANTOLAKETA:

Eskolak goizez eta arratsaldez emango dira, asteburuak lan-egunak izango direlarik. Igandeetan eta ordu libreetan, irteerak, txangoak eta bestelako ekintzak burutzeko aukerarik izango da.

### URRATSAK:

4. urratsetik gora.

## SARAKO BARNETEGIA

Antolatzaileak:

Donostiako Altza euskaltegia.

Donostiako Manpas euskaltegia.

Donostiako Rikardo Arregi euskaltegia.

Erreterriako Ortazar euskaltegia.

Gasteizko Hegoalde euskaltegia.

Gasteizko Udaberria euskaltegia.

### INGURUA:

Ipar Euskal Herrian kokaturik dago Sara, Lurrin mendiaren magalean, hain zuzen ere. Senpereko lakua handik kilometro bakan batzuetara besterik ez dago. Herriko eskolak badu pala txapelketak jokatzeko frontoi polit bat; igerian ihardun nahi izanez gero, hango piszinak konformagaitzenak ere asetzen ditu. Mendigoizaleek, aldiz, Larrun mendian dute berebiziko erronka.

### BARNETEGIA:

Ikastaldeak hartzeko primeran dago prestatutik Sarako barnetegia. Eguneko otordu guztiak bertan prestatzen dira eta jateko ere ez da inora joan behar, bertan jangelak ere badirelako.

### EGUNAREN ANTOLAKETA:

Egunean zehar, zazpi eskola-ordu. Igandeetan eta ordu libreetan irteerak eta txangoak egingo dira.

### NOIZ:

Uztailean: 17tik 30era. Abuztuan: 1tik 30era eta 16tik 30era.

### URRATSAK:

7. urratsetik gora

# ANBOTO

TABERNA - JATETXEA  
EGUNEKO MENUA

Kutxileria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -  
01001 GASTEIZ

testu  
liburuak

zure euskal  
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

eskatu zure  
ikas-liburuak  
herrikoian  
eta ez estutu  
gero



# Joxean Sagastizabal arrakastaren atzaparretan



**E**uskal literaturak eman duen azken best-seller-a da “Kutsidazu bidea, Ixabel”. Lortutako arrakastak ustekabeen harrapatu du Joxean Sagastizabal. Liburuak izan duen harrera bikainaren nondik-norakoak bere buruari argitu nahirik aurkitu dugu umore eta ironiaz idatzitako liburu horren egilea. Euskara maila hobetzeko asmoz uda baserri batean igarotzeko asmoz bazaude, komeni zaizu “Kutsidazu bidea, Ixabel” liburua irakurtzea inora abiatu aurretik.

## ALBERDANIA ARGITALETXEAK

“Kutsidazu bidea, Ixabel” argitaratu zuenetik urtebete pasatxo igaro da eta jadanik 12.000 ale saldu ditu Joxean Sagastizabalen liburuak. “Ez dakit zer gertatu den: modan dagoela asko saldu delako edo asko saldu dela modan dagoelako, baina egia da emaitzak oso onak izan direla, oso zaila baita gure artean 3.000 ale saltzera iristea”.

Liburuak izan duen harrera ona azaltzeko ahaleginetan aurkitu dugu eibartarra: “Nik umoreagatik dela uste dut. Euskal literaturaren lanik nagusienak oso triste eta dramatikoak dira: “Kcappo”, “Hamaseigarrenean aidanez”, “Bi anai”, ... eta horrelako istorio tristek jendea asetu dutela uste dut”.

Euskara sakontzeko asmoz Tolosako baserri batera doan gazte bati gertatutakoak kontatzen ditu Joseanen istorioak. Hango euskalkiarekin zailtasun handiak izateaz gain erabat ezezaguna duen bizigiro batekin egiten du topo Juan Martin gazteak: “Asfaltoko mutil erdalduna baserrira joaten da eta mundu eta kultura berri bat aurkitzen du”. Joxean bera Hernialdeko baserri batean egon zen 1976an eta “liburuan kontatzen den hizkuntza eta kultur txokea bizi izan nuen. Nire gaitasun falta exajeratua da-

“**Urtebete pasatxoan Kutsidazu bidea, Ixabel liburuaren 12.000 ale saldu dira**”

deportivos

**AZOKA**

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04  
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05 Fax: 22 07 19  
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

**TXUSTA**  
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea  
GASTEIZ



go, baina ez izugarri. Zer nahi duzu esatea? Ni bezalako "finolis" batentzat oso gogorra izan zen, deserosoa", adierazi digu liburuan erakusten duen ironia puntu berbera agerian utziz.

### Euskalkien aberastasuna

Kalerean eta baserriaren arteko ezberdintasunak ezezik, euskaltegi eta baserriko euskararen arteko aldea ere isladatzen da liburuen orrietan. "Ikasleek atsegin dute liburua. Nobelako protagonistak "euskara ikasteaz p...raino nago" esaten duenean, oso ondo ulertzen dute zergatik esaten duen hori. Bere ere batzutan "ninteke, liteke eta abarrez kokoteraino nago" esateko gogoia sentitu dute baina ez dira ausartzen".

Halere, euskaltegiatik atera berri diren ikasleak ez dira euskalkiekin arazoak dituzten bakarrak: "Euskararen aberastasun gramatikala zoragarria izan arren gogorra ere bada. Zuberotar batekin edota alfabetatu gabeko euskaldun bizkaitar batekin hitz egitea ere..."

Elkarren arteko komunikazioa errazteko euskara batua sortu zela argi ikusten du Sagastizabalek: "Batua ez da munduko asmakizunik handiena izango baina txarrena ere ez. Dena dela, euskarak ahalik eta aberastasun gutxien galdu behar du eta ahalik eta gehien irabazi".

Joxean euskaltegi bateko irakaslea izan da 15 urtez. Bolada luze horretan izan du astirik konturatzeko nolakoak diren bertako ikasleak eta zergatik ikasten duten euskara. "Nik 600 ikasle nituen urtero eta esan behar da mota guztietako jendea joaten dela euskaltegira". Bere ikasleatariko batzuk liburuko pertsonaia bihurtu ditu: harakin ahohandia, asko jakin usteko euskaldun zahar traketsa, Donostiako neska "pija" bat, monja eta apaizak,... "Eta guztiek interes amankomun bat dutela uste da: euskara ikastea" edo lehen behintzat hala pentsatzen zen.



Euskaltegi irakasle "historikooi" tokatu zaigu ikustea nola aldatu diren ikasleen ezaugarriak. Lehen abertzaletasunagatik edo euskaltzaletasunagatik ikasten zuen jendeak; egun erromantizismoa galdu da eta euskara ikasi "behar" duten ikasleak agertu dira. Inork ez ditu behartzen baina konturatzen dira baliagarria izango zaiela".

### Literaturatik ezin bizi

Iazko apirilean iritsi zen liburudendetara "Kutsidazu bidea, Ixabel". Orain Joxean pentsatzen hasia da badela ordua beste liburu bat idazteko. Ideiak ez zaizkio falta baina "Donostian bizi eta Gasteizen lan egiten dut, Etxegarate mendatea hobeto ezagutzen dut nire etxeko komuna baino,

eta gainera urtebeteko semea daukat. Noiz idatziko dut?" Idazleen ametsa liburuetatik bizitzea omen da eta eibartarrari ere hori pasatu zaio inoiz burutik. Zerbakiak egiten hasita, ordea, azkar ohartu da hori ezinezkoa dela: "Egun dudan soldata nahikoa normala dela kontuan hartuan, horrenbeste irabazteko "Kutsidazu..." bezalako hiru liburu idatzi beharko nituzke urtean. Zail samarra, ezta?".

Buruan duen istorioa serioa da, oso ezberdina aurrekoaren aldean. Joxeanek badaki aurreko liburuarekin lortutako arrakastak bere ondorengo produkzio osoan eragina izango duela. "Estilo batekoa edo bestekoa izan, konparatu egingo dituzte. Espero dut gauza on gehiago idaztea baina ezinezkoa da horrelako arrakastarik berriro eskuratzea", ziurtatu du serio-serio.



Orain ospita-leko lanek tar-terik uzten

te n badio-te idazteari ekingo dio berriro eiba-rtarrak. Suerte pittin batez hemendik lasterrera izango dugu liburudendetan Joxean Sagastizabalen liburu berria. "Ideia dudanean idazten hasten banaiz laupabost hiletan egin dezaket liburua oso-osorik baina has-teko denbora behar dut". Itxoin behar. □

“Ospitaleko lanek tarterik uzten diotenean, liburu berri bat idazteari ekingo dio”

Leire Lpz. de Aberasturi



**IRUNA  
TABERNA**  
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52  
GASTEIZ



**HEGOALDE**  
euskaltegia.

Florida kalea 58 behea  
tfnoa 28 41 96  
01005 GASTEIZ

matrikula  
zaitez!



# most rongotxoak

## hAurRAK

### akatsik gabeko gizakiaren bila

**GIZAKION GORPUTZA** ez da batere perfektoa: gauza asko du soberan eta beste hainbeste ere faltan. Gorputz atal desegokiak, begi okerrak, hanka motzak, etab. beti konpongarriak direla sinetsirik, gu laguntza bila abiatu gara Gasteizko ikastola batera, gizakion gorputzaren on beharrez. Horretarako, Alde Zaharreko Banbi ikastolara hurbildu gara eta Marilui, Marisa eta Alejandro irakasleekin hitz egin dugu. Haiei eta haien mostrongotxoei galdetu diegu zein gorputz atal dugun soberan gizakiok eta zein faltan edo zer aldatuko lukete gizakion gorputzean. Hona, bada, segidan haien konponbide zoroak.



Bihotza handiagoa beharko genuke.

**Mikel, 11 urte**

Sudurra luzeegia dutenei txikiagoa jarriko nieke, horrela itsusiak daude eta.

**Erika, 10 urte**

Aurpegian begi gehiago eta soinean hiru beso izan beharko genituzke, hobeto ikusteko eta gauza gehiago batera hartu ahal izateko. Bi beso eta buztan luze-luze bat erantsiko nizkioke gorputzari, zuhaitzetik zintzilik ibiltzeko. Ilea kenduko nioke, gogoikarria da eta.

**Borinken, 11 urte**

Bi beso gehiago jartzeaz gain, gorputza bitan zatigarri bihurtuko nuke, bi lekutan batera egon behar duzunerako. Bi hego edukitzea ere ezinbestekoa litzateke inora berandu ez heltzeko.

**Artea, 11 urte**

Uste dut gorputzean lau belarri, sei begi eta hiru hanka beharrezkoak liriatekeela.

**Veronica, 10 urte**

Gorputza txikiagoa izan beharko litzateke, leku gehiago edukitzeko.

**Asier, 11 urte**

Zango eta beso egokiak eduki beharko genituzke zuhaitzetara igo ahal izateko. Horrela galosinan diru gutxiago gastatuko genuke, ingurugiroa kutsatu gabe. Gizon batzuei mihia moztuko nieke gehiegi ez protestatzeko.

**Aratz, 12 urte**

Nire iritiz, gorputza den bezalakoa izan behar da, bestela denok perfektoak izango ginateke. Eta akatsetatik ere ikasten da.

**Dani, 11 urte**

Bi buru beharko genituzke hobeto pentsatzeko, eta hiru begi hobeto ikusteko eta betaurrekorik ez erabiltzeko.

**Josune, 12 urte**

Gorputzari hegalak jarriko nizkioke: hegaz egitea gustatuko litzaidake mundua goitik ikusteko.

**Arrate, 11 urte**

Arrainen arnasketa-sistema beharrezkoa dugu, horrela uretatik atera gabe gehiago iraua genezakeelako.

**Silvia, 12 urte**



## GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefona: 24 59 33

ARTE GALERIA  
LOURDES UGARABE  
Los Arquillos kalea,7  
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509  
01001 GASTEIZ





Ilea azkarrago hazteaz gain, esku banatan sei hatzamar eduki beharko genituzke.

Eider, 12 urte

Loditzea falta zait niri, oso argala naizelako. Bestalde, burua handiegia daukat.

Nerea, 10 urte

Buruaren atzean bi begi izan beharko genituzke, horrela leku guztietatik ikus genezake. Hamar beso edukitzea ere ondo egongo litzateke, gauza bat baino gehiago batera egiteko. Horrela denbora gehiago legoke jolasteko.

Frinñe, 11 urte

Hankak ez lirateke ez laburrak ez luzeak izan beharko eta besoak hankak baino laburragoak. Nire ustez, ilea eta begiak kolore berekoak izan beharko lirateke.

Jessica, 12 urte



Lorea Zurimendi

## Gaia: "Andereñoak txuletarekin harrapatu nau



Azterketa garaia iritsita, ikastetxeetan eta ikastoleetan "txuleta" k egundoko gaurkotasuna hartzen du, ikasturtea alde edo moldez gainditu beharrak eraginda. Abendaño ikastolako ikasle batzuek azterketeen larriaz, "txuleta" z eta andereñoarenganako beldurraz hitz egingo digute segidako bertsotan.

**Neurria:**  
**hamarreko txikia**

- Eskolan nengoela
- kontrola eskuetan
- ni "Valentziako Lunan"
- nengoen pentsetan
- batzu idazten zeuden
- besteak olgeta
- horrela ezin dela
- ikasi benetan
- gorasoak badaude
- betiko penetan.

Irune 7. B

Azterketa bat daukat bihar zortzietan tranpak egingo ditut pentsatu dut lotan gaua igaro ondoren guztiok klasean zoritxarrez maisuak papera ikustean zelako zalaparta entzun zen herrian!

Nere 7.B

Eskuan nituela txuleta ahaltsuak harrapatu ninduen klaseko maisuak azterketa egiten ez nago itsua esan zidan txerriak egizu kasua joan zaitez kanpora mutil kakatsua

Lorea 7. B

JAR ezazu  
EUSKARA  
ezpainetan

### BARNETEGIAK

Doneztebe, Leitza, Lesaka, Etxalar eta Arbonan. 2,3 eta 4 aste

Ustailean eta abuztuan eta irailean

### IKASTAROAK

2 eta 5 ordu

Uztailean eta irailean

Urrats guztiak eta EGA

Uztailean 3 ordu gaztetxoentzat

### MATRIKULAZIOA:

ekainaren 5etik aurrera



GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22)

ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)

PINTO : Pintoreria 74 (28 97 80)

**AMILAMIA**

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17  
fnoa: 27 40 09  
GASTEIZ



# Arana berritu behar den auzoa



## Ekintzak.

Aranako auzo elkarteak urte asko daramatza lanean, 70.eko hamarkadaz geroztik hain zuzen. Iaz, ordea, aldaketa nabarmenak bizi zituen bere barnean. Joan den urtera arte elkarteek gizarte-etxeke ekintza guztiak antolatzen zituzten. Udalak diru kopuru bat ematen zien, bai Kultur Saisetrik, bai Gizarte Ongizatek, eta enpresa baten bitartez antolatzen zuten guztia. Orain Udala arduratzen da gizarte-etxeaz eta hor egiten diren ekintzez. "Dena den beti izan dira guk antolaturiko ekintzak, baina orain Gazte Kluba eta biblioteca Udalaren eskuetan dago". Aldaketa horren gakoa hauxe da, Javierren ustez: "Lehen auzo elkarteek egiten zuten lana orain gizarte etxeek hartu dute beren gain".

Beste lokal batean biltzen dira orain. Lehen Arabako Aurrezki Kutxak Extremadura kalean zeuzkan lokaletan zeuden. Orain, berriz, beste talde batzuekin batera daude, denak lokal berean; gela batzuk berenak dira, eta besteak Udalarenak. Hor daude, besteak beste, jubilatuen egoitza, biblioteca eta gizarte-etxea. "Hala ere, guk jarraitzen

**a**rana auzoaren ezaugarriak eta bitxikeriak jakiteko asmoz, bertara abiatu gara, Javier Fernández de Betoño Aranako auzo elkartekeko presidentearekin solasaldi bat egiteko asmoz. Oinez egiten dugu bidea, eta auzoan sartu bezain pronto, eskailerek eta hesiek inguratu gaituzte. Buelta batzuk (gora eta behera) eman ondoren, Aragoi kalera iritsi gara, hor baitago elkarteak. Javier argututa, haien aretora sartu gara. Hona, bada, bi ordu luzeren ondoren Arana auzoari buruz jakin duguna.

## ARANA GASTEIZKO AUZO

zaharrenetariko bat dugu. Lehenengo auzokideak 60.eko hamarkadaren bukaeran iritsi ziren bertara. Javierrek esan digunez, "etorkin asko etorri dira hona bizitzera, eta horietariko askok ere Betoño industrialdean lan egiten zuten, batez ere Forjas eta Michelin lantegietan". Langileen auzoa izan arren, "gure auzoan jendea gustora bizi zen krisia aliegatu baino lehen, bizitza-kalitatea altua zen eta".



## GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

### OLARIZU

Jose Uruñuela  
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

### ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia  
Tfnoa: 28 33 05

Poteo eta giro ona

### ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6  
23 31 92

Eguneko menua



dugu ekintzak antolatzen, hala nola, ingelera klaseak, soinketa, tailerrak, borroka, eta abar...".

Kirol taldeak aipagarriak dira, esaterako, S. D. Aranako klub ezaguna, bere txirridulari taldearekin eta futbol taldeekin, "horiek betidanik izan dira hemen, elkarte barruan daude baina independenteak dira, haiek beren kasa aritzen dira".

**Arazoak.**

Arana auzoan, Gasteizko beste auzoetan bezala, arazoak ez dira falta. Urte luzeetan denetarik arazoak izan omen dira. Gaur egun, aldiz, "auzoaren itxura da kezkarik gehien sortzen digun arazoa". Hori horrela, eta auzo zaharra izanik, gauza asko daude kalean konpontzeke. Duela gutxi Udalak gizarte-hirigintzarako azterketa bat egin zuen Aldabe, Adurtza eta Arana auzoetan. Oraingoan hizpide dugun auzoari dagokionez, azterketa haren arabera, trafikoa, etxeen aurrealdeak eta lonja batzuk ziren okerren zeudenak.

Elkarteak berak aurkeztu zion Udalari arazoan zerrenda bat honako hauek eskatzeko: errepideen egitura orokorraren ikuskatzea, dauden lorategi apurrak egokitu eta gehiago zaintzea, hesiak margotzea, eskailerak (bazter guztietan daudenak, bide batez esanda) konpontzea, barandilak ipintzea behar diren lekuetan, etab. "Gure auzoa zaharra da, eta eraiki zenean gauza asko ez zituzten aintzat hartu. Orain oso zaila da gauza horiek konpontzea, baina gutxienez hobeto ipini eta zaindu beharko lituzkete". Bere ustez, neurri hauek hartu beharko lirateke: "Aranako parketik pasatzen den indar elektrikoaren kablea kendu, etxeen aurrealdeetan dauden telefono hariak lur azpian sartu, zaharkituta dauden lonjak konpondu edo industri txikiak beste leku batera eramateko aukerak aztertu".

Bestelako arazoak ere badaude, auzoko biztanle asko jubilatu egin dira edo



aurretiazko jubilazioa hartu behar izan dute, eta orain ez dakite zer egin, ez baitute inongo zaletasunik. Elkarrekin, hori ikusirik, Udalari eskatu dio gai hori kontuan hartzeko.

**Gazteria.**

Duela gutxi Aranan drogen arazoa ere pairatzen zuten. Horren aurrean, auzoko jende asko, batez ere gazteak, mugitzen hasi ziren egoera konpontzeko. Ez dira alferrik ibili alajaina: "Orain ez dago arazorik, auzoz auzo ibiltzen baitira, eta norberari tokatu arte inor ez da mugitzen. Orain koordinadora bat osatu nahi dugu, elkarri laguntzeko eta, beste auzo

batzuekin batera gehiago lan egiteko arazo horren inguruan; baina hemen jendeak arazoari oso ondo erantzun ziola esan behar dut".

Gazte talde bat ere arduratu da azken hiru urteetan jaiak antolatzeaz. Lehen elkarteak antolatzen zituen, baina jendeak ez zuela antolakuntzan parte hartzen ikusirik, jaiak ez ospatzea erabaki zuten. Orduan, gazte talde horiek jai batzordea antolatu zuten eta jaiak aurrera atera dituzte "gauzak ondo eginez". Gazte horiek hemendik aurrera Aranako elkarteetan bilduko dira, kultur batzordea osatu baitute, eta jaiak antolatzeaz gain beste ekintza batzuk ere bideratu nahi dituzte.

Euskerari dagokionez, gure hizkuntzaren egoera ez da oso ona, euskaraz jende gutxi mintzatzen da eta. Hala ere, handik hurbil dagoen ikastola bateko haurrak euskera kalera ateratzen hasi dira, "baina hori gutxiengo baten kontua besterik ez da, gainera, guk lehen euskarazko eskolak antolatzen genituen, baina gero eta jende gutxiago etortzen zen, beste leku batzuetara joaten zelako. Hori ikusita, dena bertan behera utzi genuen", esan digu Javierrek.

*David Alvez*

**Umeak**  
zaintzen ditugu

**kan croak**  
geu

**GOIZEZ**

- Beatriz 22 61 18
- Iholdi 14 45 91
- Nekane 26 91 53
- Eduardo 14 21 99
- Leire 27 32 81
- Lorena 27 10 13
- Ainara 23 38 28

**GAUEZ**

- Esther 27 84 57
- Imma 24 22 41
- Iholdi 14 45 91
- Idoia 24 47 79
- Lorena 27 10 13
- Ainara 23 38 28

**ARRATSALDEZ**

- Oihana 25 30 35
- Imma 24 22 41
- Rafa 25 22 68
- Iratxe 24 51 81
- Lorena 27 10 13
- Patrizia 27 78 19
- Iratxe 24 51 81
- Ainara 23 38 28

**ASTEBURUAN**

- Olatz 25 61 20
- Jose Angel 27 62 41
- Saida 26 58 05
- Idoia 24 47 79
- Belen 13 65 10

**Zeu ere haurrak zaintzeko prest baldin bazaude, deitu ezazu 22 21 53 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara.**

**ELEKTRIZITATEA**



muntaia elektrikoak  
automatismoak  
girotzeko musika  
eta segurtasuna

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95  
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR





# Mila Esker gudariak!



**ALAVESZALEA** izatea ez da beti samurra. Hori frogatzeko, bukatu berria den play-off-ari begiratu besterik ez diogu egin behar. Las Palmas-i irabazi eta gero, igoera lortzeko bidea egina zegoela zirudien, baina ez zen horrela izan. Alaves tartean egonda, ezin zen bestela izan, eta beti bezala, aurten ere sufritu egin behar izan dugu.

Urteroko mamiak agertu ziren Jaenen. Alaves-ek puntu bakar bat behar zuen igotzeko, helburua hurbil-hurbil ikusten genuen. Hala ere, "Las Victoria" Andaluziako zelaian beldurra berriz ere nagusitu zen gure baitan. Eskerrak aurten kataluniarrek gure alde jokatu duten. "Visca Catalunya" esan beharko dugu, beraz. Kataluniatik etorri zaizkigu golak, etxeokak nahiz kanpokoak. Gogoratu, batetik, Sedanok eta Codinak egin

**a**rabar gudariak gara Gasteiz askatzeko/gerturik dugu baloia/atean sartzeko/irrintzi bat entzun da Mendizorrotzan/goazen gudari danok Alaves-en atzean. Ez, gaude burutik. Aitor Arregi Deportivo Alaves-eko jokalaria Las Palmas-en aurkako norgehiagoka bukatu bezain laster, "gudariak gara, onenak gara" bota zuen, eta guk Getariakoaren txantxari jarraitu nahi izan diogu.

“Mendizorrotzako zaletuei esker lortu da igoera”

asmo ederrak  
aire zabalean

**la calle**

taberna

Dultzaina, 10



**ALDANONDO  
HARATEGIA**

P. Ubis Plaza  
☎ 25 46 08


01003 GASTEIZ

**BAR  
KLAKÉ**

KUTXA, 2  
TFNO.  
143883



GASTEIZ



HegoAmerikako  
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren  
kantoianaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

**Xabier**  
taberna

musika ona  
eta giro  
ezinhobeak

Kutxileria 23

vitrales



**MIKEL  
DELIKA**

**BEIRATE  
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tf: (945) 14 64 10  
GASTEIZ





duten play-off zoragarria, eta bestetik, Gramanet-ek Deportivo Alaves-i egin dion mesedea.

### Denboraldi ona

Baina atzokoa atzo. Arregi president-teak esan zuen bezala, "azkenik lortu dugu igotzea". Alaves-ek oso denbo-raldi ona egin du. Defentsan sendo, zelai erdian teknikak eta indarrak bat egin dute, eta erasoan Codinaren eta Seranoren azkartasuna ere aipatzekoa da.

Hernani, Gernika edota Irun oso herri politak dira turismoa egiteko, baina ez

Mendizorrotzakoen maizter izateko. Datorren urtean Mendizorrotzako "General" zaharra futbolaz gozaten hasiko da. Arabarron zain izango dira Eibar, Valladolid, Osasuna, Logroñes eta Bilbao Athletic taldea. Betiko 3.000 zaletuei beste asko gehituko zaizkie, eta ez da porlanik ikusiko Mendizorrotzako harmailetan.

Askok eta askok bizkarra eman diogu Alaves-i azken urteotan. Hala eta guztiz ere, Mendizorrotzako zalego tematiak (3.000 zaletu horiek) ez du inoiz etsi, eta hari eskaini behar diogu igoera. Hari esker, Alavesa ez zen boladarik

“**Aurten denboraldi ona egin eta gero, Alaves-a Bigarren A Mailan izango da datorren urtean**”

txarrenetan ere desagertu, hari esker ez da sekula bakarrik egon; hitz batean, hari esker igo da Deportivo Alavesa. Mila esker zuei, zuek benetako gudariak baitzarete. Adio Bigarren B Mailari. Gero arterik ez.

*Ismael Diaz de Mendibil.*



## MODA-MODAN

Zatoz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitetz moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak!  
Harritu zaitetz ispiluzko eusturez eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.  
Eta guztiak kalitate optiko kristalekin, Jakina. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

**ETA NAHI BADUZU,  
GRADUATU  
EGINGO DIZKIZUGU**



Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO

**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
VITORIA-GASTEIZ

**1.950**  
PEZETAN  
**ZER DERITZOSU?**



8.000 METROTIK GORAKO HAMALAU  
TONTORRAK IGO NAHI DITUT

# Juanito Oiartzabal

Maiatzean Makalu mendian egon ondoren, Pakistango Broad Peak gailurra da bere hurrengo helburua



## ZORTZIAK JO

**ETA BEREHALA** agertu da Juanito Oiartzabal esandako lekuan. Garagardo eta zurito bana eskatu, bazter batean eseri eta hizketan hasi gara. Nolabait hasi behar eta gaztetan egindako lehenengo mendi irteerei buruz hitzegiteko eskatu diot. "Nire lehenengo irteerak aitarekin egindakoak dira. Aita oso mendizalea nuen, ehizarako zaletasuna ere bazuen eta askotan ibiltzen ginen elkarrekin. Hamabi-hamahiru urte nituelarik, berarekin joaten nintzen Gorbeara edo ingu-

ruko mendietara. Eskalatzera lehenengo aldiz, ordea, anaiarekin joan nintzen Eginora. Gogoan dut egun hartan anaiaren laguna erori egin zela eta gertaera hark markatu egin ninduen. Orduan, hamalau urteko gaztetxoa besterik ez nintzen eta esan daiteke esperientzi gogor hura izan zela nire mendizaletasuna piztu zuena".

Eginoko haitz eta bide ezagunak, antza denez, berehala txiki geratu zitzaizkion. "Atxo Apellaniz lagun nuela Pirinioetara joaten hasi ginen hamasei-hamazazpi urterekin. Garai hartan oso gogorak eta zalilak ziren bideak egin genituen. Besteen-

gandik bereizi eta bide berriak urratzea ere oso gustuko genuen biok. Jarraian Alpeak etorri ziren eta han ere gauza berriak egiten saiatu ginen". Mendi ugari eta erronka berriak bata bestearen atzetik. Hori zen beren ilusioa. Egund, ordea, abenturarako zaletasun hori galdu egin dela uste du. "Orain eskalada-eskoletara joatearekin konformatu ohi da jendea eta alpinismoa bazter batera geratzen ari da. Askoz erosoagoa da eskola horietan

**“Oso gustuko genuen besteengaindik bereizi eta bide berriak urratzea”**

ZAPATA KONPONKETA  
**AZKARRA**  
GILTZEN KOPIAK  
Benito Guinea, 18 GASTEIZ

**EL**  
BAR  
Kutxi  
e  
g  
u  
n  
e  
k  
o

LARRI  
ETXEA  
Zapa, 38



eskalatzen aritzea eta tarteka Pirinioetara joatea ondo hornitutako bideak egitera”.

**San Ferminetarako Broad Peak mendiko gailurra zapaltzeko asmoa daukagu**

Juanito Oiarzabalek, berriz, hori baino zerbait gehiago behar du. Nekatzen ez den horietakoa da. "Menditik itzultzerakoan etxera iristeko gogoz etortzen naiz baina hemen 15 edo 20 egun egin ondoren berriz ere hiritik ihes egitea da nire asmoa". Hamabost egun eskas dira Makalutik etorria dela eta beste bidaia baterako prestaketak egiten ari dela esan digu. Oraingo honetan Pakistango Karakorum eskualdean dagoen Broad Peak du helburu. "Banuen mendi horretara joateko gogoia. Iaz K2-an egon ginenean saiatu ginen Broad Peak-era igotzen baina ez genuen bertara joateko baimenik lortu. Orain, ia ezustean, aukera hau sortu zait eta aprobeztatu beharra dago". Berarekin batera Mari Abrego eta Josema Casimiro naparrak eta Gumersindo Ibañez gasteiztar mendizale veteranoa izango dira espedizioan. Ez du zailtasun berezirik espero gailurra lortzeko. "8.000 metroko mendien artean errazenetarikoa da, nahiz eta guztiek ere beren zailtasunak dituzten. Maiatzean Makalun egon nintzen, irailean Lhotsera joango naiz eta, bien artean, igotzeko arazo handiegirik ez duen mendi hau egiten saiaturik naiz. Gauza guztiak ondo ateratzen bazaizkigu, uztailaren erdialderako edo San Ferminetarako tontorra zapaltzeko asmoa daukagu".

Ziurtasunez hitzegiten du Juanito Oiarzabalek. Guri hain urrun geratzen zaizkigun lurralde eta mendiak ondo ezagutzen ditu berak. Jadanik 8.000 metrotik gorako sei mendi menderatzea lortu baitu. Horrela jarraituz gero munduko hamalau mendi garaienak laster lortuko dituela esan diogu. "Bai pentsatu

dut inoiz 8.000 metrotik gorako hamalau mendiak igotzea, baina ez da hori orain nire helburu nagusia. Asko falta zaizkit kopuru horretara heltzeko. Hala ere, aurten apustu gogorra egin dut. Urte berean zortzimilako hiru mendi egitea ez da batere erraza, gure artean ez dago horrelakorik egin duenik. Beraz, aurten dena ondo aterako balitz beste sei geratuko litzazkidak. Aurten, Broad

Peak eta Lhotse lortuz gero... baldintza egokiek, eguraldiak lagunduta eta istripurik ezean, hamalauak egiten saiaturik nintzateke, bai". Duen gogoia eta sasoiarekin ez da saiatu gabe geratuko behintzat.

Bera esperientzia handiko mendizalea da. Gure ezjakintasunean zortzimila metroko mendi bat eskalatzek zer



**LORTU DITUEN GAILURRAK**

- Cho-Oyu (8.201 m.) 1985ean
- Gasherbum II (8.035 m.) 1987an
- Nanga Parbat (8.125 m.) 1992an
- Everest (8.848 m.) 1993an
- K2 (8.611 m.) 1994an
- Makalu (8.463 m.) 1995ean

**JUANITO OIARZABAL**



**IZAN DITUEN "HUTSEGITEAK"**

- Hidden Peak (8.068 m.) 1987an.
- Kangchenjunga (8.598 m.) 1988an eta 1991n
- Makalu 1989an
- Everest 1990ean

**Hona aukera ona!**  
**barnetegian edo euskaltegian**

Peru 8 • 22 60 50  
Jose Mardones 8 • 26 35 40  
Arana 30 • 25 24 00

**Gasteizko**



kafetegia  
taberna

**ALDAPA**

SAN VICENTE  
aldapa  
GASTEIZ





suposatzen duen galdetu diogu. Pentsakor geratu da une batean. Isilune laburraren ondoren honako hau bota du: "Nire lehenengo zortzimilakoa egin nuenean hura izugarria izan zen niretzat. Kontuan izan mundu osoan hamalau direla soilik altuera hori gainditzen duten mendiak. Oso jende gutxi du horrelako pribilejioa. Han sentitu nuena ezin azaldu daiteke, gainontzeko gauzen aldean oso diferentea den zerbait sentitzen duzu". Momentu honetan, ordea, sei aldiz zentzazio horiek bizi ondoren, beste bat igotzek zerrendari bat gehiago eranstea esan nahi du. "Horretaz gainera, Broad Peak ez da gehien erakartzen nauen zortzimilakoa. Behar bada, gehien erakartzen nindutenak K2 eta Nanga Parbat ziren, biak ere oso bereziak direlako".

Mendiaren bakardadean, une gozoak eta latzak pasa behar izaten dira, horrelakoetan kontrako bi sentimendu sortzen zaizkio mendizaleari. "Horrelako mendi batera joaten zarenean gustura ibili nahi izaten duzu bai eta gauza asko

“Mendian esperientzia gutxi duen jendeari laguntzen diot. Argentina, Peru, Cervinora eramaten dut”

ahaztu, hirian bizi dugun estresa, jendea... eta hori oso ona da niretzat. Egia esan, askotan ere hotz izugarria pasa behar izaten dugu, neke handiak eta batzutan ez dakizu zer egin. Baina hori gutxia tontorrera iristearekin batera ahazten da eta, dudarik gabe, gozamina da gehien nabarmentzen den sen

Denboraldi bat mendian igaro ondoren, eguneroko bizitzara itzultzea ez omen da arazo handiegia berarentzat. "Jadanik ohituta nago. Espedizio ugari egin ditut nire bizitzan, urte asko daramatzat mundu honetan eta leku askotan egona naiz. Buruko txip-a aldatzea da kontua". Bere lana horrelakoa da, izan ere. Mendi gidaria da eta bidaia ugari egin behar izaten ditu. "Mendian esperientzia gutxi duen jendeari laguntzen diot.. Argentinara, Perura, Cervinora eramaten dut jendea. Espedizio bat egiteko prestaketa-lan handia egin behar izaten da aurretik. Jende askok ez du denborarik horretarako eta ni arduratzen naiz horretaz. Gero mendian dakidana erakusten saiatzen naiz".

Zuek ere ohartuko zinetenez, mendia da bere bizimoduaren oinarria. Mendia, mendia eta mendia. "Gasteizen egun batzuk egin ondoren, mendira joateko beharra sentitzen dut. Ez nuke jakingo mendiak eskalatu gabe bizitzen". Bukatu beharra daukagu. Presaka dabil. Geu Gasteiz-ekoa amaitu bezain laster, beste elkarrizketa bat egin behar diotela esan digu agurtzerakoan. Gure aldetik zorte ona opa diogu eta bere asmoak bete daitezen espero dugu. Ez da ez erronka txikia.

Xabier Zabaleta

# DeNb OrApa SAK



Alvin Lee  
26 urteren  
ondoren



**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

JANTZI ETA OPARIAK



Kutxillera, 40  
Tfnoa: 26 07 10  
GASTEIZ



**GURUTZEGRAMA**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	U	E	U		A	N	D	E	R	E
2	Z	A	R	A	T	E		T	A	R
3	T			K	A	B	U	Z		E
4	A		T	A	K	A		A	A	I
5	I	P		B	A	K	U	N	I	K
6	L	I	M	A			K			L
7	A	R	A	N	T	Z	A	K		
8		A	R	T	X	A		I	K	A
9	A	T		Z	I		A	H	E	N
10	I	A		A	O	R	T	A		E

ZEHARRETARA: 1. Udako Euskal Unibertsitatea. Adre. 2. Arabako herriska. Jatorri atzizkia. 3. Tarragonako autoetan. Ekimenez, kasa. Elektroia. 4. Lehena. Errepikaturik, haur hizkeran oinez. Ahitu aditzaren infinitibo. 5. (Ald.) 3, 14. Anarkismoaren teorilaria. 6. peruko hiriburua. Potasioa. Berrogeitamar. 7. Landareen ziri zorrotzak. 8. Arpoia. Ikas eta ari. 9. Kanpo. Kitarra jotzeko tresnaxoa. Une laburra. 10. Kasik. Arteria nagusia. Elektroia.

GOITIK BEHERA: 1. Gauden hilabetea, Amnesty International. 2. Bizkaiko herriska. Itsas-lapurra. 3. Edateko. Tarragonako autoetan. Errepikaturik zurrumuffu. 4. Bukaera, amaiera. 5. Sarrera estua. Txoriek egiten dute. 6. Anaiak. Zamorako autoetan. Roentgen. 7. Bostehun. Uranioa. Ukatu aditzaren infinitibo. Kanpo. 8. Ohean-jarri. Kimatu aditzaren infinitibo. 9. Jainko egipziarra. Bizia galdu. Suaren ondorio. 10. Euskal argitaletxe bat. Neska izena.



**SINESTEZINA.** Alvin Lee gitarrajolea Gasteizera etorri eta egunkariak ez dute horren aipamenik txikiarik ere egin. Komunikabideek zabaltzen ez dutena ez dela existitzen kontuan hartuz, zera galdetzen diot neure buruari: Maiatzaren 13an neuk eta bostehun lagun gehiago inguruk ikusi eta entzun genuena gure buruak sortutako zerbaitek ez zen izan? Aluzinazio ederra, bada, gau hartakoa, ederra benetan.

Baina ez, zinez, egitan eta benetan gertatu zen. Nola ez. Azken finean noiz eskaini diote komunikabideek rock and roll-ari merezi duen lekua? Agian krisialdiak behartu ditu paper eta tinta asko ez gastatzera. Beharbada, Julio Iglesias etorriko denerako gordetzen ari dira indarrak. Seguru asko, Alvin Lee izena ez da agertzen beren ordenagailuen datu-baseetan. Dena den, Alvi Lee-ren gitarra dastatu ahal izan genuen Gasteizen. Elefante Blanco aretoa lekuko. Ikusle askorik ez, gutxi ere ez; aretoa erdi

hutsik, erdi beteta. Alvin Lee gogotsu, gu ere bai.

“Duela 26 urte Woodstock-ko jaialdian, orain Gasteizen”. Horrela aurkeztu ziguten Alvin Lee-ren kontzertua. Ten Years After taldeko burua izan zena bakarrik etorri zitzaigun, Steve Gould (baxujolea), Alan Young (bateria) eta bere gitarra lagun bakarrak zituelarik. Badirudi krisialdiak ez dituela soilik komunikabideak jotzen.

26 urtek, buf, gehiegi eman zuten. Nola aurkituko ote genuke 60.eko eta 70.eko hamarkadetakako rock-laria? Zahaturik? Ez gehiegi, bada, urteek nahikotxo errespertatu dute. Gitarra beti bezala.

Bat, bi, hiru eta “Keep on Rocking”, hasita genuen kontzertua. Kanta klasikoen birpasa izango zela uste genuenok ez ginen oso zuzen. Alvin-ek diska berria dauka kalean eta horixe defendatzen du bere agerraldietan. Klasikoa, berria, klasikoa, berria,..., ez zuen ajola, kanta berri edo zaharretan betiko trebeta-

sunarekin mugitzen zituen atzamarrak mastilean zehar, teknika ezin hobea erakutsiz.

“Love like a man”, “Slow blues in C”, espero genituen abestiak badatoz gure belarrietara. Garapen luzeak, bakar-kanta bukaezinak, gaurko rock-arekin bat ez datozen ezaugarriak. Hala ere, horiek Alvin Lee-ren eskuetan oraindik badute lekua bai eta bere garaiko beste gitarrajole paregabe bati eskainitako minutuek ere, Jimmy Hendrix-i, hain zuzen. Haren omezez, “Hey Joe”-ren soinu ederrak.

Eta nola ahaztu Woodstock-eko oroitzapena: “I’m going home”. Zortzi minutu rock indartsu eta azkarrean murgilduta. Alferrik gehiago esatea. Eskerrik asko Alvin. “Chou, chou mama” eta etxera. Pozik. Zu bai, gogoratu zara Alvin Leekin, Ten Years After-ekin. Eta zu?

*Joxemari-Txabi Arnal Gil*

restaurante • jantoki

**DOS HERMANAS**

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano madre Vedruna, 10  
Tfnoa 13 29 34 • 13 44 46

**ARABA BIDAIAK**

**GAZTEONTZAT**

GALIZA (multiabentura) • 39.700 pta  
PIRINEOTIK PIKOETARA • 48.700 pta  
PORTUGAL • 31.800 pta  
HIRI INPERIALAK • 43.600 pta  
PARIS-HERBEHEAK • 45.800 pta  
SUIZA • 56.800 pta

INGLATERRA-ESKOZIA • 71.500 pta  
ESKANDINABIA • 104.800 pta  
ATENAS • 59.800 pta  
TURKIA • 64.600 pta  
KENIA • 198.900 pta  
THAILANDIA • 162.400 pta  
INDIA-NEPAL • 213.400 pta  
TXINA HANDIA • 211.700 pta

**ARABA BIDAIAK**  
ETORRI eta GALDETU

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)  
Abrevadero (Frantzia kalea ondoan) 28 21 88  
GASTEIZ  
Av. Zumalakarregi, 48 (672 28 42) LAUDIO



# kultur agenda ■ UZTAILA ■



**udako euskal unibertsitatea**

**XXIII. UDAKO IKASTAROAK**

**IRUÑA**  
uztailaren 17tik 29ra

**3.000 ordutik gora euskaraz**

**ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA:**

antzerkilaritza / artea /  
bertsolaritza / musika

**GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK:**

antropologia / disziplinartekoak

/ ekonomia / eusko kultur gaiak  
/ filosofia / historia / kazetaritza  
/ pedagogia / psikologia /  
sexualitatea / soziolinguistika /  
soziologia / zuzenbidea

**HIZKUNTZALARITZA:**

glotodidaktika I / glotodidaktika  
II / itzulpen literarioa /  
itzulpengintza orokorra / laneko  
euskara / linguistika

**ZIENTZIAK:**

fisika / informatika /  
matematika / natur zientziak

**anima  
zaitezte !**

EGIN ! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN ! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN ! • SUKALDE

**sukalde txokotik**

# Albeniz jatetxetik: Txitxo

**BADIRUDI AMONAK ASMATU ZUELA SAN JAKOBOA**

**ALBENIZ JATETXEA** 1920an sortu zuen Anastasia Gastaminzak. Harrez geroztik oso gutxi aldatu da, nahiz eta duela sei urte berrikuntza batzuk egin bertan. Betiko sukaldaritza tradizionala dugu nagusi bertan. Txitxo, Anastasiaren biloba, sukaldaritza tankera horretan oso jakituna da. Anastasiak plater asko utzi zituen heredentzia gisa. Plater berriak ere sortu dituzte, baina jatetxe honek betiko sukaldaritzari gogotik eusten dio.

**UDAN GAUDE, URTARO HONETAN JAKI BEREZIRIK PRESTATZEN AL DUZUE?**

Beno, bai, zer edo zer aldatzen dugu. Beste mota bateko platerak sartzen ditugu menuan, esaterako, garbantzuak binagretarekin. Udan eusten diogu urtean zehar egiten dugun sukaldaritza tradizionalari baina aldaketa gutxi batzuk sartzen ditugu: lapikoko jaki batzuk kentzen ditugu eta gauza freskoagoak eskaintzen ditugu: porruak binagretarekin, porrusalda, menestra...

**UDAN JENDEAK GAUZA ARINAGOAK HARTZEN DITU. ZURE USTEZ, ZERGATIK GERTATZEN DA HORI ?**

Gure ustez, hona etortzen den jendeak ez du gutxiago jaten ez loditzeagatik, beroagatik baizik. Beroak kentzen dizu

jateko gogoia edo jaten dituzun gauzak arinagoak dira, freskagarriak.

**LAU URTAROETATIK ZEIN DA ZUENTZAT GOGORRENA?**

Dudarik gabe, uda da txarrena, udan gogorra egiten zaizu lana, batez ere eguerdian egiten duzuna, plantxako jakiak, gauzak frijitu. Goizean, berriz, gustorago egiten duzu lan.

**NORI EMANGO ZENIOKETE JATEN BENETAN GUSTORA?**

Mundu guztiari ematen diogu baina batez ere jende normala etortzen da gure jatetxera: langileak eta abar. Horixe da gustatzen zaigun jendea, menua eskatzen duena, hain zuzen. Horiek eskertzen dizute astean zehar egindako lana. Asteburuetan etortzen dira hona

landareak lore sortak lore ihartuak

**L D E N D A**

*Tu Invernadero*

**ALDABE 6 BEHEA**

tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

**OKOAK**  
kulturrekartera  
Apdo. 3.306 VITORIA-GASTEIZ

**ARABAKO KULTURAREKIN KONPROMEZUA HARTU**

Honen bitartez, adierazitako egunetik aurrera urtero, eta bestelako abisurik bat eman arte, OKOAK nire izenean bidalko dituen 2.000 pezetako erreizorrik, nire kontuan kargu eskatzen dizut.

**BAZKIDE  
IZANI!**

*Defenda dezagun gure kultura*

IZEN/ABIZENAK .....

HELBIDEA ..... HERRIA .....

SINADURA ..... TELEFONOA .....

BANKETXEA-KUTXA ETA SUKURSALA ..... DATA .....





**UZTAILA**

- MORILLAS**  
Santa Ixabel 2an
- ARAMAIO**  
Sankristobal 10ean
- GESALTZA**  
Sankristobal 10ean
- MAEZTU**  
Karmenak 16an
- ARAMAIO (AREXOLA)**  
Santamarina 18an

- ASPARREN**  
Santamarina 18an
- LANGRAITZ**  
Santiagoak 25ean
- GASTEIZ**  
Blusen eguna 25ean
- LAUDIO (ARETA)**  
Santaaana 26an
- LAUDIO (UGARTE)**  
San Inazioak 31an
- ZALDUONDO**  
San Inazioak 31an

**OHARRAK**

1.- Zerrenda hau gure borondate onenarekin egina dagoen arren, baliteke akatsak egotea.

2.- Herritako jaiek ez dute beti berbena suposatzen. Beraz, gai honetaz karteletan informatzea gomendatzen dizuegu.

**agenda ■**



KOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN!

afaltzera. Horrek esan nahi du pozik daudela prezio eta kalitatearekin.

**ZER NAHIAGO DUZUE, AMAK PRESTATZEN DITUEN PLATERAK ALA ZUREAK?**

Zaila da hori erantzutea zeren eta guk sukaldaritzaren tradizioa egiten baitugu. Hemen lan egiten dugunok hementxe jaten dugu. Bestela ez genuke jakingo nola prestatu ditugun janariak. Probatu behar dituzu.

**AMONAK JATETXEA IREKI ZUENETIK HONA ASKO ALDATU DUZUE ZUEN SUKALDARITZA TANKERA?**

Ez, egia esan, ia-ia ezer ez. Aldaketa batzuk egin ditugu baina eusten diogu sukaldaritzaren tradizioari. Honela gustora ari gara eta bestetik, jendeak horrela segitzeko eskatzen digu. Plater hauek jaten dituzte oso gustora: txuletoiak, txipiroiak, legatza eta abar...

**IKUSTEN DITUZUE TELEBISTAN EMATEN DITUZTEN SUKALDARITZA-SAIOAK?**

Bai, noizean behin, eta, egia esan, oso egokiak iruditzen zaizkit. Hortik hartu

ditugu gauza txiki batzuk, trikimailu batzuk. Argiñanok prestatzen duen sukaldaritzaren Subijana baina errazagoa da, baina biak oso sukaldaria onak dira.

**LIGATZEKO ZER PLATER GOMENDATZEN DIGUZU?**

Hori, beti bezala, gustoen arabera da. Nere kasuan, hona etorriko banintz bikoterekin hauek hartuko genituzke: babarrunak almejekin, txuletoia, gaztanbera zati bat eta goxua. Edateko, berriz, ardo beltza 1991koa edo abusazkoa.

**ZEIN DIRA JAN DITUZUN PLATERIK ARRAROENAK?**

Venezuelan zuhaitz egosia jan nuen eta horixe da probatu dugun arraroena. Egia esan, oso gaizki zegoen. Ez dizuet gomendatzen.

**SEKRETU ASKO DITUZUE**

**SUKALDARIOK?**

Askok, asko, ez, baina baten batzuk bai. Beti izan behar duzu sekreturen bat. Hemen, adibidez, babarrunak almejekin eta San Jakoboa ditugu. Plater horiek Anastasiak utzi zizkigun eta horiekin segitzen dugu. Badirudi amonak asmatu zuela San Jakoboa.

Karlos Fdz. de Betoño



*Bacalao Giraldo*

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"




Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



# BIKA LEA







# uztailak 25

# Blusaren

# eguna



## Uztailak 24

gaueko 12etan **gau-jaia**  
Plaza Berrian.

## Uztailak 25

goizeko 8etan **meza** San  
Migel elizan, Manuel Iradier  
abesbatzaren partaidetzaz.

goizeko 9etan **dianak** Andra  
Mari Zuriaren plazan.

goizeko 10,30etan  
**asto-lasterketa** Andra Mari  
Zuriaren plazan.

goizeko 11,30ean  
**herri-kirolak** Foruen plazan.

eguerdiko 12etan  
**musika-giroa** erdialdean.

eguerdiko 12,30etan  
**kontzertua** Florida parkean.

arratsaldeko 4,45etan  
**zezenetara joatea**

arratsaldeko 6etan  
**zezenketa**

arratsaldeko 8,30etan  
**zezenetatik itzultzea**

arratsaldeko 9etatik gaueko  
12etara **Super 1** Foruen  
plazan





# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
<b>UDALETXEA</b>	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	16 13 60
	GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	PERTSONAL SAILA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	16 16 53
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
<b>BULEGO TEKNIKOAK</b>	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA	Dato, 11	16 11 87	16 11 88
	ERROLDA ETA SOLDADUTZA	Dato, 11	16 11 06	
	BORONDATEZKO DIRUBILKETA	Dato, 11	16 16 68	
	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33	
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20	
<b>OSASUN ETA KONTSUMO SAILA SAILA (DEMSAC)</b>	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
<b>UDAL ARTXIBOA</b>	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
<b>ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 88	
<b>VILLA SUSO JAUREGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 70	
<b>HEZKUNTZA SAILA (IME)</b>		Fray Zacarias	16 12 16	
<b>GIZARTE ETXEAK</b>	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa María kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50	
	ABETXUKO		24 47 14	
	ARIZNABARRA		13 36 91	
<b>EUROPA GIZARTE-ETXEA</b>	ARGIBIDEAK-KULTURA		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
<b>KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA</b>			13 36 91	